

Etxalarko etxeak

PELLO APEZETXEA ZUBIRI

Galdemodu anitz egiten ahal dugu herriko etxeei buruz, hala nola, noizkoak diren, herriaren sorreratik hona ugaritu diren edo gutitu, orain ikusten ditugun etxeak egin zireneko ber-berak diren; edo tartean berreraikiak, eta, berreraikitzean, etxeen egiturak nola aldatu diren aldian aldiko sentiberatasun eta beharren arabera; etxeen izenez ere galdetzen ahal dugu eta beraien bilakaeraz, solasak ere aldatzen joaten baitira, hobeki erranda, aldatzen joaten baikara, jendeok aldatzen ditugu eta. Eta antzekoak. Galdera hauei guztiei ez diet nahiko genukeen erantzun osorik emanen, baina jakin dudana agertuko dut.

NOIZKOAK DIRA ETXALARKO ETXEAK?

Etxeez solasten hasten bagara, Etxalarren bi etxe multzo bereizi behar dira: baserriak eta karrikako etxeak. Ezberdina da bien historia, neurri batean. Neurri batean ezberdina baita karrika eta baserrien sorrera eta bilakera, ezberdina izaera ere. Ez du horrek erran nahi elkarrekin loturarik ez dutela karrikak eta baserriak, badute lotura eta, estua gainera, ikusiko dugun bezala.

Etxe zerrenda idatziak aurkitzen ditugu paperetan, baina ez nahi adina. Nik ikusi dudan zaharrena 1750ekoa da, Herriko Etxeko artxiboan. Parrokian, berriz, XVIIIgarren mendearen hondarrean, 1797an, hasi ziren erroldak egiten, etxe eta bizilagun guztien izenak aipatzen dituzten erroldak.

Baina badugu lehenagoko iturririk, etxe izenen berri ematen diguna. Elizako liburuetan, herriko bataiatu eta hildakoen xehetasun zenbait ikusten ahal dugu, duela ia 400 urtetik hona. Beti ez bada ere, xehetasunen artean bataiatuaren edo hildakoaren etxe izena ere ageri da. Horrela, 1620garren urtetik hasita, etxe gehienen izenak jakiten ahal ditugu, etxe gehienetan norbait jaio edo hil izanen baitzen. Beraz, nahiz eta ezagutza xehe eta osoa ez izan, behar bada, aski hurbilekoa badugula uste dut.

KARRIKAKO ETXEAK

XVII. mendean ageri diren karrikako etxeak: 1600etik 1700. urtera arte

Agerreberea	Etxeberrigaraia	Martintonia
Agerregaraia	Etxebertzea	Martiñenea
Aldabea	Garaikoetxea	Matxikosantzena*
Aldalurra	Gartxinea	Matiasenea
Aldegia*	Gastienea	Matxinenea
Altzugaraia	Gaztelua	Maxterrenea
Amusenea	Gillenea	Mikelestenea
Anduetzea	Goienetxea	Mitxelarrenea
Antsona*	Goietxea	Mitxelenea
Antxurdenea	Gorostipalea	Mokorra
Apeztegia	Herrikoetxea	Murdenea
Araneder*	Iarria*	Olajaundegia*
Arantxipia	Iguzkiagerrea	Perotxenea*
Arantzatea*	Intzea	Perubeltzena*
Arburua	Iñarrea	Perugorrienea
Argiñenea	Iriarte	Perukiñenea
Arotzenea	Iribarrenea	Petrikoandiarena*
Arria	Irigoienea	Petrisantzena*
Arrigaraia	Iriondoa	Saindunea
Arrionea	Isastia	Santsiñenea
Arrosea	Iturburua*	Santxotena*
Barberenea	Iturraldea	Telleria
Basatea	Iturria	Telleria-Xirrima
Bautixtenea	Iturrigaraia*	Tolarea
Bidaburua	Jauregia	Tomasenea
Bidegirena*	Joanabarrinea	Topaldea
Buxunea	Joangorena*	Tornariarena
Danborienea	Joanperitzenea	(Erretorenea)
Dendarienea	Juantximorenea	Txantre*
Dolarea	Kamioa	Txantxetena*
Dolarea Bergara*	Katalinsantzinena*	Uhaldetxea
Domekenea	Lakatenea	Uhartea
Domigelenea	Landaburua	Urrutia
Donpaulenea	Larrasaiets	Urtzallenea
Elizaldea	Lekainberro	Xalaiñenea
Errandonea	Lopenea	Xaxinea
Errota (1)	Maestruenea*	Xoraxuria
Errotagaraia	Maienea	Xurionea
Erretorenea	Marigorosenea	Zabaleta
Etxagaraia	Marimigelenea	Zalduenea
Etxaldea*	Mariskirena*	Zamargillenea
Etxaxuria	Maritonea*	Zamatelua
Etxazarra*	Maritxenea	Zamudienea
Etxeberria	Martikonea	Zelaia
Etxeberrieia	Martinea	

Denera 134 etxe ageri dira, karrikan, 1700. urtea arte.

*seinalea dutenak, desagertu dira.

Auzoka banatuta, honela dira urte horietako karrikako etxeak

Antsolokueta auzoa 1600-1700

Altzugaraia	Irigoienea	Perugorrienea
Arantxipia	Kamioa	Santsiñenea
Arrosea	Larrasaiets	Telleria
Argiñenea	Lekainberro	Telleria-Xirrima
Basatea	Lopenea	Uhaldetxea
Etxaxuria	Martintonia	Zalduenea
Gillenea	Martiñenea	Zamatelua
Iguzkiagerrea	Marigorosenea	Zelaya
Iriarte	Mariskirena*	

Antsolokueta auzoko etxeak: 26.

*seinalea dutenak desagertuak dira.

Anduetzeta auzoa 1600-1700

Anduetzea	Etxebertzea	Martikonea
Antsona	Gastienoa	Maxterrenea
Arotzenea	Gaztelua	Mitxelarrenea
Bautixtenea	Herriko Etxea	Mitxelenea
Dendarienea	Intzea	Perukiñenea
Elizalde	Iribarrenea	Topaldea
Errandonea	Isastia	Xalaiñenea
Errota	Iturriberea	Xaxinea
Etxagaraia	Iturria	Zabaleta
Etxeberrieia	Juantximorenea	

Anduetzeta auzoko etxeak: 29.

Iñarreta auzoa 1600-1700

Aldabea	Gartxinea	Maritxenea
Aldegia*	Goienetxea	Martinea
Amusenea	Goietxea	Matiasenea
Apeztegia	Gorostipalea	Mikelestenea
Araneder*	Iñarrea	Mokorra
Arantzatea*	Iriondoa	Murdenea
Barberenea	Iturraldea	Perotxenea*
Bidegirena*	Iturburua*	Saindunea
Dolarea	Iturria	Tolarea
Domekenea	Iturrigaraia*	Tomasenea
Donpaulenea	Joanabarrinea	Uhartea
Errotagaraia	Joangorena*	Zamargillenea
Etxeberria	Landaburua	Zamudienea
Garaikoetxea	Maestruenea*	

Iñarreta auzoko etxeak: 41.

*seinalea dutenak desagertuak dira.


Jauregieta auzoa 1600-1700

Agerreberea	Etxaldea*	Olajaundegia*
Agerregaraia	Etxazarra*	Perubeltzena*
Antxurdenea	Etxeberrigaraia	Petrikoandiarena*
Arburua	Iarria*	Petrisantzenea*
Arria	Jauregia	Santxotena*
Arrigaraia	Joanperitzenea	Tornariarena
Arrionea	Katalinsantzinena*	(Erretorenea)
Bidaburua	Lakatenea	Txantre*
Buxunea	Maienea	Txantxetena*
Danborienea	Marimigelenea	Urrutia
Dolarea Bergara*	Maritonea*	Urtzallenea
Domigelenea	Matxikosantzenea*	Xoraxuria
Erretorenea	Matxinenea	Xurionea

Jauregieta auzoko etxeak: 38.

*seinalea dutenak desagertu dira.

HERRIKO MAPA 1601-1700



XVIII. mendean, hau da, 1701etik 1800era, karrikako bertze 10 etxe izen ikusten ahal ditugu:

Aranea*	Jauregiberria	Peruenea
Irisarria	Mariskirenaberea*	Salaberria
Iturberea	Matiasenea	
Iturria	Patxikusantzena	

*seinale hau dutenak, desagertuak dira.

Auzoka banatuta, hara nola diren urte horietan etxeak

Antsolokueta auzoa 1701-1800

Altzugaraia	Irigoiena	Mariskirena*
Arantxipia	Kamioa	Perugorrienea
Arrosea	Larrasaiets	Santsiñenea
Argiñenea	Lekainberro	Telleria
Basatea	Lopenea	Telleria-Xirrima
Etxaxuria	Mariskirenaberea*	Uhaldetxea
Gillenea	Martintonia	Zalduenea
Iguzkiagerrea	Martiñenea	Zamatelua
Iriarte	Marigorosenea	Zelaya

Antsolokueta auzoko etxeak: 26.

*seinaledunak desagertuak dira

Anduetzeta auzoa 1701-1800

Anduetzea	Etxebertzea	Martikonea
Antsonea	Gastienea	Maxterrenea
Arotzenea	Gaztelua	Mitxelarrenea
Bautixtene	Herriko Etxea	Mitxelenea
Dendarienea	Intzea	Perukiñenea
Elizalde	Iribarrenea	Topaldea
Errandonea	Isastia	Xalaiñenea
Errota	Iturberea	Xaxinea
Etxagaraia	Iturria	Zabaleta
Etxeberrieia	Juantximorenea	

Anduetzeta auzoko etxeak: 29

Iñarreta auzoa: 1701-1800

Aldabea	Barberenea	Garaikoetxea
Aldegia*	Bidegirena*	Gartxinea
Amusenea	Dolarea	Goienetxea
Apeztegia	Domekenea	Goietxea
Aranea*	Donpaulenea	Gorostipalea
Araneder*	Errotagaraia	Iñarrea
Arantzatea*	Etxeberria	Iriondoa

Iturraldea	Maritxenea	Salaberria
Iturburua*	Martinea	Tolarea
Iturria	Matiasenea	Tomasenea
Iturrigaraia*	Mikelestenea	Uhartea
Joanabarrinea	Mokorra	Zamargillenea
Joangorena*	Murdenea	Zamudienea
Landaburua	Perotxenea*	
Maestruenea*	Saindunea	

Iñarreta auzoko etxeak: 43

*seinalea dutenak desagertuak dira


Jauregieta auzoa 1701-1800

Agerreberea	Etxeberrigaraia	Perubeltzena *
Agerregaraia	Iarria*	Peruenea
Antxurdenea	Irisarria	Petrikoandiarena*
Arburua	Jauregia	Petrisantzena*
Arria	Jauregiberria	Santxotena*
Arrigaraia	Joanperitzenea	Tornariarena (Erretore- nea)
Arrionea	Katalinsantzinena*	Txantre*
Bidaburua	Lakatenea	Txantxetena*
Buxunea	Maienea	Urrutia
Danborienea	Marimigelenea	Urtzallenea
Dolarea Bergara*	Maritenea*	Xoraxuria
Domigelenea	Matxikosantzena*	Xurionea
Erretorenea	Matxinenea	
Etxaldea*	Olajaundegia*	
Etxazarra*	Patxikusantzena	

Jauregieta auzoko etxeak: 42

*seinalea dutenak desagertuak dira

HERRIKO MAPA 1701-1800



XIX. mendean, 1801etik 1900era, 3 etxe berri bertzerik ez dugu ikusten karrikan

Aldaitegia Aldalurberea - Aldalurttikia Jabierrenea

XIX. mende honetan, Antsolokueta, Iñarreta eta Jauregieta auzoetan ez zen etxe berririk jaso. Goian aipatutako hiruak Anduetzeta auzokoak dira.

Auzoka banatuta, hara nola diren urte horietan etxeak

Antsolokueta auzoa 1801-1900

Altzugaraia	Irigoiena	Mariskirena*
Arantxipia	Kamioa	Perugorrienea
Arrosea	Larrasaiets	Santsiñenea
Argiñenea	Lekainberro	Telleria
Basatea	Lopenea	Telleria-Xirrima
Etxaxuria	Mariskirenaberea*	Uhaldetxea
Gillenea	Martintonia	Zalduenea
Iguzkiagerrea	Martiñenea	Zamatelua
Iriarte	Marigorosenea	Zelaya

Antsolokueta auzoko etxeak: 26.

*seinalea dutenak desagertuak dira

Anduetzeta auzoa 1801-1900

Aldaitegia	Etxeberrieia	Martikonea
Aldalurberea-Aldalurttikia	Etxebertzea	Maxterrenea
Anduetzea	Gastienea	Mitxelarrenea
Antsonea	Gaztelua	Mitxelenea
Arotzenea	Herriko Etxea	Perukiñenea
Bautixtene	Intzea	Topaldea
Dendarienea	Iribarrenea	Xalaiñenea
Elizalde	Isastia	Xaxinea
Errandonea	Iturberea	Zabaleta
Errota	Iturria	
Etxagaraia	Juantximorenea	

Anduetzeta auzoko etxeak: 32

Iñarreta auzoa: 1801-1900

Aldabea	Dolarea	Gorostipalea
Aldegia*	Domekenea	Iñarrea
Amusenea	Donpaulenea	Iriondoa
Apeztegia	Errotagaraia	Iturraldea
Aranea*	Etxeberria	Iturburua*
Araneder*	Garaikoetxea	Iturria
Arantzatea*	Gartxinea	Iturrigaraia*
Barberenea	Goienetxea	Joanabarrinea
Bidegirena*	Goietxea	Joangorena*

Landaburua	Mokorra	Tomasenea
Maestruenea*	Murdenea	Uhartea
Maritxenea	Perotxenea*	Zamargillenea
Martinea	Saindunea	Zamudienea
Matiasenea	Salaberria	
Mikelestenea	Tolarea	

Iñarreta auzoko etxeak: 43

*seinalea dutenak desagertuak dira

Jauregieta auzoa 1801-1900

Agerreberea	Etxeberrigaraia	Perubeltzena*
Agerregaraia	Iarria*	Peruenea
Antxurdenea	Irisarria	Petrikoandiarena*
Arburua	Jauregia	Petrisantzenea*
Arria	Jauregiberria	Santxotena*
Arrigaraia	Joanperitzenea	Tornariarena
Arrionea	Katalinsantzinena*	(Erretorenea)
Bidaburua	Lakatenea	Txantre*
Buxunea	Maienea	Txantxetena*
Danborienea	Marimigelenea	Urrutia
Dolarea Bergara*	Maritonea*	Urtzallenea
Domigelenea	Matxikosantzenea*	Xoraxuria
Erretorenea	Matxinenea	Xurionea
Etxaldea*	Olajaundegia*	
Etxazarra*	Patxikusantzenea	

Jauregieta auzoko etxeak: 42

*seinalea dutenak desagertuak dira

XX. mendean eta 21.aren hastapenean, 1901etik 2005era arte, 65 etxeko multzo berria ikusten dugu, ia dena azken 40 urteetan eraikia

Agirrenea	Etxe Mañoli	Larregi
Ainhoa	Etxegoxo	Larraburua
Anaiak etxea	Goizargi	Lekuona (1)
Aranbera	Gure Itzala	Lekuona (2)
Arangora	Gurutze	Mendialde
Argaratea	Ibaiondoa	Mendibidea
Arrasate	Iguzkitza	Sarobe
Arretxeberria	Iharria	Toki Arin
Arribillagaenea	Iriberrri	Ttutturre
Baratzenea	Itsasmendi	Tximixtondo
Bazterretxea	Izargi	Txistu
Beola etxea	Jauregia	Txoriekin
Elordi	Katuin	Ura-Mendi
Errekaldea	Kontsultategia	Urtzelai
Errekondoa	Landakoetxea	Zabaldi
Etxe Maite	Landetxea	Zubierdi

XX. eta XXI. mende hasieran 65 etxe berrietatik, 48 bere izenarekin ageri dira, eta oraindik izenik eman gabeko bertze 17. Dena den, kopuru hau aldagarria da, gaur den egunean etxe berriak inoiz ez bezala eraikitzen ari baitira.

Auzoka banatuak, gaur egun dauden bezala ikusiko ditugu karrikako etxeak orain

Antsolokueta auzoa 2005

<u>izena</u>	<u>Udalak emandako zenbakia</u>
Ainhoa	54
Altzugaraia-Marigorosenea	51
Anaiak Etxea	50
Aranbera (4 bizileku)	15
Arangora (4 bizileku)	13
Arantxipia	11
Argaratea II	32
Argaratea	36
Arrose Berria	4
Arrose Txikia	6
Arrosea	2
Baratzenea	35
Basatea	23
Buztingorri	
Etxaxuria	47
Etxe Mañoli	10
Ezpondagaña	1
Goiz Argi	30
Iguzkiagerrea	20
Iriarte	33
Iribarren Zurgindegia	28

Irigoienea	46
Izenik gabeko	7
Kamioa	41
Lakainaldea	56
Larrasaiets	45
Lopenea	22
Martiñenea	31
Mendiarte	48
Perugorrienea	49
Santsiñenea	26
Telleria	18
Telleria	39
Txistu	65
Txoriekin	12
Uhaldetxea	8
Uramendia	37
Xirrima	
Zabaldi	z.g.
Zalduenea	7
Zamatelua	55
Zelaia	53
Zubierdi	9

Antsolokueta auzoko etxeak, denera: 50

Bertze bortz ere izan dira, gaur egun desagertuak:

Gillenea, Santsiñenea ondoan zena.

Mariskirena, Larrasaiets eta Kamioa artean;

Mariskirenaberea, aitzineko bera, seguraski;

Sagardiberea, Argiñene parean;

Martintonia, hau ez dakigu non zen.

Bertzalde, Altzugarai eta Marigorosenea etxe bakarra bezala ageri dira, leen bi zirenak, Perugorrienea eta Zelaia artean.

Anduetzeta auzoa 2005

<u>izena</u>	<u>Zenbakia</u>
Agirrenea	5
Aldaitegia	28
Aldalurberea (Aldalurttikia)	10A
Aldalurra	6
Anduetzea	34
Arotzenea	17
Dendarienea	2
Elizaldea	11
Errandonea	23
Errota	38
Eskola Zaharrak	
Eskola Zaharrak	12
Etxagaraia	10

Etxeberriberea	26
Etxebertzea	30
Gastienea	13
Gaztelua	19
-Herriko Ostatua	15
Intzea	22
Iribarrenea (2 etxebizitza)	3
Isastea	25
Iturberea	18
Iturria	8
Jabierrenea	36
Juantsimorenea – (Nafar Kutxa)	21
Koartela 1	40
Koartela 2	42
Martikonea	14
Maxterrenea	9
Mitxelarrenea - Herriko Etxea-	
Mitxelenea	32
Perukiñenea	1
Topaldea	7
Xalaiñenea	20
Xaxinea	16
Zabaltea – Rural Kutxa	4
Zubiondoa (Bautixtenean)	27

Anduetzeta auzoko etxeak denera: 37

Bada desagertutako bat: Antsonea, Aldaitegia ondoan zegoena.

Iñarreta auzoa 2005

<u>izena</u>	<u>Zenbakia</u>
Aldabea	18
Amusenea	33
Apeztegia	25
Arribillaganea	3
Barberenea	37
Domekenea (2 etxebizitza)	15
Donpaulenea	42
Etxeberria	31
Garaikoetxea	40
Gartxienea	39
Goienetxea (2 bizileku)	34
Goietxea	5
Gorostipalea	62
Gure Itzala	8
Iharria	2
Iñarrea	17
Iriondoa	4
Iturralde	48
Joanabarrenea	10

Kontsultategia	21
Landaburua	6
Maritxenea	52
Martienea	56
Matiasenea (2 etxebizitza)	29
Mikelestenea	26
Mokorra	19
Murdenea (2 etxebizitza)	28
Praderenea	50
Saindunea	35
Salaberria (2 etxebizitza)	46
Tolarea	44
Tomasenea (2 bizileku)	38
Uhartea	41
Zamudionea	9

Iñarreta auzoko etxeak denera: 36

Desagertuak:

Bidegirena,

Joangorena,

Maestruenea: hirurak Mikelestenea eta Aldabea artean zeudenak

Zamargillenea: Mediku Kontsultategiaren ondoan.

Perotxenea, Iturralde eta Salaberria artean.

Iturria: Praderenea den tokian.

Iturburua eta Iturrigaraia: behar bada, Iturria etxea bera?

Aldegia

Aranea

Araneder

Arantzatea

Jauregieta auzoa 2005

<u>izena</u>	<u>Zenbakia</u>
Agerrea-Agerregaraia	12
Agerreberea	10
Andre Mari Eliza	2
Antxurdenea	7
Arburua (2 etxebizitza)	8
Arretxea	20
Arretxeberria (4 etxebizitza)	22
Arria (3 etxebizitza)	5
Arrigaraia	15
Arrionea	9
Bagolea	31
Bidaburua	42
Buxunea	39
Danborienea	17
Domigelenea (4 etxebizitza)	44
Erretorenea	6

Errotagaraia	54
Etxeberrigaraia	36
Ibaiondoa	52
Igerilekuak	
Irisarria	27
Itsasmendia	50
i/g	
Izen gabea	28
Jauregia (4 etxebizitza)	18
Jauregiberria	14
Joanperitzenea	35
Kultur Etxea	4
Lakatenea	37
Landagain Eskola	25
Lekuarin	30
Maienea (2 etxebizitza)	3
Marimigelenea (2 etxebizitza)	46
Zubialde	48
Matxinenea	1
Mendialde	32
Mendibidea	33
Peruenea (3 etxebizitza)	40
Urrutia	41
Urtzallenea	13
Xoraxuria	11
Xurionea (Botika)	29

Jauregieta auzoko etxeak denera: 41

Desagertuak:

Katalinsantzinena, Arriaren gibelean zegoena

Maritonea, Marimigelenearen gibelaldean

Olajaundegia, Etxeberriko txabola ondoan den Perukiñeneko baratzen

Perubeltzena, Kultur Etxe ondoan den aparkalekuan

Dolarea Bergara

Etxaldea

Etxazarra

Iarria

Matxikosantzena

Petrikoandiarena

Petrisantzena

Santxotena

Txantre

Txantxetena

Hondarreko 10 hauetatik, Dolarea Bergara, Petrikoandiarena eta Petrisantzena Jauregieta auzoan zeuden, nahiz ez jakin non xeheki. Gainerakoez ez dakigu auzoa ere zein zen.

Izena aldatua:

Patxikusantzena, gaur egun Bagolea deitzen duguna

Tornariarena. Parrokiak 17.mendean erosi arte etxeak zuen izena. Gaur egun Erretorenea deitzen zaio.

Praderenea, lehen Iturria.

Beolaldea auzoa 2005

<u>izena</u>	<u>Zenbakia</u>
Beola Etxea	5
Etxe Maite	1
Landakoetxea	3
Larraburua	

Beolaldea auzoko etxeak denera: 4

Goikolanda auzoa 2005

<u>izena</u>	<u>Zenbakia</u>
Arizpe	
Errekondoa	6
Gurutze	8
Iriberry	1
Iriberry	1
Landagain eskola	

Goikolanda auzoko etxeak denera: 6

Bekolanda auzoa 2005

<u>izena</u>	<u>Zenbakia</u>
Urtzelai	4
Izargi	7
i/g	
i/g	
Elordi	
i/g	
i/g	
i/g	
Katuin	
Gartxitonea	
Sarobe	
i/g.	
Ttutturre	
Arrasate	12
Landetxea	14
Etxegoxo	16
Lekuona	18
Bazterretxea	20
Errekaldea	
Tximistondo	

Bertze 8 etxe, izenik gabe

Bekolanda auzoko etxeak denera: 28

Karrikako etxe kopurua eta okupazioa, auzoka

	jende finkoa	asteburukoa	hutsak	denera
Antsolokueta	31	12	3	46
Anduetzeta	24	3	8	35
Iñarreta	25	4	5	34
Jauregieta	29	6	6	41
Goikolanda	3	2		5
Beolaldea	4			4
Bekolanda	18		2	20
	134	29	22	185

Denera 212 etxe ziren, karrikako eremuan, 2005. urtean, izendunak, eta izenik gabeak.

Gainera, aitzineko zerrendetan 26 izen gehiago daude, mendeetan zehar desagertutako etxeenak.

Desagertuak:

Katalinsantzinena, Arriaren gibelean zegoena

Maritonea, Marimigelenearen gibelaldean

Olajaundegia, Etxeberriko txabola ondoan den Perukiñeneko baratzan

Perubeltzeta, Kultur Etxe ondoan den aparkalekuan

Dolarea Bergara

Etxaldea

Etxazarra

Iarria

Matxikosantzena

Petrikoandiarena

Petrisantzena

Santxotena

Txantre

Txantxetena

Hondarreko 10 hauetatik, Dolarea Bergara, Petrikoandiarena eta Petrisantzena Jauregieta auzoan zeuden, nahiz ez jakin non xeheki. Gainerakoez ez dakigu auzoa ere zein zen.

Ondotik, eta gaur den egunean, gero eta etxebizitza gehiago egiten ari dira Etxalarren. Etxe kopurua, horregatik, urtetik urtera aldatzen doa.

BASERRIAK

Erraiten ahal dugu Etxalarrek dituen berezitasunetako bat baserria dela, inguruko herriek bezala. Baserria erraiten basoko herria erran nahi dugu, mendietan sakabanaturik dauden etxeak, karrika deitzen dugun etxe multzotik aparte, batzuetan aski urrun. Horrek jendearen bizimoduan eragina izan du, baserriko bizimoduari berezitasuna eman dio. Kontutan hartu behar da, bidea oinez egin behar zela. Eta ez jende batek edo bertzek. Zenbat baserri zen ohartzen bagara, ez da inor harrituko Etxalarro biztanlegoaren erdia baino gehiago baserrietan bizi zela erraten badugu. Eta jende hauetatik gehienak ordu erditik ordu beterako bidea egin behar zuen karrikara etortzeko. Eta ka-

rrikara etortzeko erratean, medikutara, dendara, eskolara, elizara eta bertze hainbat gauzataraz etortzeko, erran nahi dugu. Eta bertze hainbertze denbora, noski, etxera joateko. Gehienetan, denbora luzeagoa, itzultzean malda gehiago igaro behar baitzen. Horrek bazuen eragina herriko bizimodu osoan ere. Baserriaren sorrera ere ez da karrikako etxearen denbora berekoa. Horregatik denagatik, egokia iduritu zait karrikako etxeetatik bereiz paratzea. Gaur egun, kotxea eta telefonoa baserrian sartu direnetik, berezitasuna tikititu egin da, baserri eta karrika arteko aldea eta desberdintasuna ez da hainbertzekoa. Baina bada.

Noizkoa da baserria?

Ez dakit herriaren sorrera beretik baserririk bazen edo ez zen. Seguruenik bai, bat edo bertze izanen zen. Bat edo bertze erran dut, guti baitziren, lehenbiziko mendeetan, karrikakoekin konparatuta. Hori gero aldatzen joan zen. Zenbat eta zer baserri ziren jakiteko, lehen aipatutako Bataiatu eta Hildakoen liburuak ematen digute berri gehien, Parrokiako artxiboan dauden liburuak. Karrikako etxeekin gertatutako gauza bera.

Bataiatu eta Hildakoen liburuetan bataiatuaren edo hildakoaren etxe izena ekartzen du aunitzetan, lehen erran bezala, duela 400 urte ingurutik hasita. Hori bai, baserriena ez hain garbi, XIX. mendera arte. Ordurarte paratzen zuten izena, etxearena zen, baina ez etxe horrena zen bordarena. Errate baterako, Domekenea izena dakar, bataiatutakoa karrikako Domekenea etxean jaioa denean. Eta gauza bera, Domekenea izena dakar, Domekeneko Bordan jaioa denean. Etxea Domekenea zen. Domekeneko Borda, berriz, Domekenea etxearen Borda. Eta liburuetan ez zuten bereizten bat eta bertzea. Borda etxearen zatitza jotzen zuten, etxearen luzapentzat, bordak ez zuen bere nortasun propiorik. Ondorioz, ez zegokion ezta izen propiorik ere. Horregatik goian errandakoa, baserriena ez dela hain garbi ikusten. Ez hain erraz. XVIII. mendean hasi ziren, liburu batzuetan, baserriak ere bereizten.

Hala ere, baziren, eta badira, karrikako etxe baten borda ez diren Baserriak, hastapenetik beren izen propioa zutenak, eta dutenak. Orduan bai, ageri da izen hori, Saroieta edo Arrakoitz, erraterako.

Hara nola ageri zaigun baserriaren sortzea eta hedatzea, mendeetan zehar

1600etik 1700erako urteetan

Bataiatu eta hildako agirien liburuetan 28 baserri ageri dira. Gogoratu, urte beretan karrikan 120 etxe ageri direla. Horrek garbi adierazten du, baserri gehiena karrikako etxea baino beranduagokoa dela. Gerta daiteke, noski, urte horietan bataiatzeko haurrik ez zen, edo inor hil ez zen baserriaren bat edo bertze gehiago izatea. Hala gertatuta ere ez du iduri aunitzik izaten ahal zenik. Aipatutako urteetan, 28 baserri hauek ikusten ditugu:

Aldalurreko borda	Benta Etxaxuria	Etxeberriko borda
Aldatsea	Berekozugia	Ezkutua
Arrakoitz	Berroeta	Garaikoetxeko borda
Bagaratea	Bidatzerdia	Gorosurreta
Basateko borda	Elizaldeko borda	Iasola

Larraldea	Mitxelenekeo borda	Saroieta
Latsabea*	Mugerdia	Topaldeko borda
Mariskirenagaraia	Olagaraia	Xurioneko borda
Marixenegaraia*	Olazarrea	
Mendiondoa	Ozkaritz	

Denera, 28 baserri.

*seinalea dutenak, gaur egun desagertuak dira.

Auzoka nola banatuak zeuden ikusiko dugu

Gorosurreta auzoa 1601-1700


Elizaldeko Borda

Gorosurreta

Mitxeleneko borda

Gorosurreta auzoko etxeak denera: 3

GOROSURRETA 1601-1700




Lurriztederra 1601-1700

Berroeta

Larraldea

Lurriztederra auzoko etxeak denera: 2

LURRIZTIEDERRA 1601-1700




Urritzokieta auzoa 1601-1700

Arrakoitz	Etxeberriko borda	Mugerdia
Benta Etxajuria	Ezkutua	Ozkaritz
Berekozugia	Garaikoetxeko borda	Saroieta
Bidatzerdia	Latsabea*	Topaldeko borda

Urritzokieta auzoko etxeak denera: 12

*dutenak desagertuak dira

URRITZOKIETA 1601-1700




Larrapil-Sarriku auzoa 1601-1700

Xurioneko Borda

Larrapil-sarriku auzoko etxeak denera: 1

LARRAPIL-SARRIKU 1601-1700



Orizki auzoa 1601-1700

Bagaratea	Olagaraia	Iasola
Mendiondoa	Olazarrea	

Orizki auzoko etxeak denera: 5

ORIZKI 1601-1700




Lakain-Apezborro 1601-1700

Aldalurreko borda
Aldatsea

Basateko Borda
Mariskirenagaraia

Lakain-Apezborro auzoko etxeak denera: 4

LAKAIN-APEZBORRO 1601-1700



XVIII. mendean, 1701etik 1800erako urteetan

66 baserri gehiago ageri dira. Ondotik doaz beren izenak:

Agerreko borda	Irisarrigaraia
Aitzalegia	Iturraldeko borda
Antsoneko borda	Jauregiberriko borda
Antxurdeneko borda	Joangoneko borda
Apezborro	Joanaberrieneko borda
Apeztegiko borda	Katalanborda
Arantxipiko borda	Lapitzegia
Arantzateko borda*	Larraldea
Argiñeneko borda	Lekueder
Armitx	Lopeneko borda
Arrantzelaia	Maieneko borda
Arriko Borda	Marigoroseneko boda
Arterenea	Maritoreneko borda
Artzariain	Martikoneko borda
Axular	Matxineneko borda
Barbereneko borda	Maxterreneko borda (1)
Berekoetxea	Maxterreneko borda (2)
Bidegirena (borda)*	Mendiondoko borda
Buxungo borda	Oiarburua
Dendarieneko borda (1)	Olajaundegiko borda
Dendarieneko borda (2)	Olazarreko borda
Donpauleneko borda	Perugorrieneko borda (1)
Elizaldegaraia	Petrisantzeneko borda
Etxaxuriko borda	Sagardiberea*
Etxeberrieieko borda	Saindueneko borda
Etxebertzeko borda (1)	Santsiñeneko borda
Etxebertzeko borda (2)	Topaldeko borda
Goienetxegaraia	Uharteko borda
Goienetxeko borda	Urrutiko borda
Goietxeko borda	Xoraxuriko borda
Iguzkiagerreko borda	Zabaletako borda
Iparragerreko borda	Zamargilleneko borda
Iribarreneko borda*	Zelaiko borda

*Seinale hau dutenak desagertuak dira: 4.

Auzoka banatuta, honela ageri zaizkigu baserriak denera, urte hauetan

Gorosurreta auzoa 1701-1800

Argiñeneko borda	Gorosurreta	Maxterneko borda
Elizaldeko Borda	Martikoneko borda	Mitxeleneko borda
Etxebertzeko borda	Maxterneko borda	Sagardiberea

Gorosurreta auzoko etxeak denera: 9

GOROSURRETA 1701-1800




Lurriztederra auzoa 1701-1800

Antxurdeneko borda	Donpauleneko borda	Joangoneko borda
Apeztegiko borda	Goienetxegaraia	Larraldea
Axular	Iparragerreko borda	Zamargilleneko borda
Berroeta	Joanaberrineko borda	

Lurriztederra auzoko etxeak denera: 11

LURRIZTIEDERRA 1701-1800




Urritzokieta auzoa 1701-1800

Arrakoitz	Garaikoetxeko borda	Mugerdia
Benta Etxajuria	Goienetxeko borda	Olajaundegiko borda
Bereko etxea	Goietxeko borda	Ozkaritz
Berekozugia	Iribarreneko borda	Saindueneko borda
Bidatzerdia	Lapitzegia	Saroieta
Etxeberriko borda	Latsabea*	Topaldeko borda
Ezkutua	Maieneko borda	

Urritzokieta auzoko etxeak denera: 20

URRITZOKIETA 1701-1800




Larrapil-Sarriku auzoa 1701-1800

Agerreko borda (1)	Buxungo borda	Matxineneko borda
Agerreko borda (2)	Elizaldegaraia	Oiarburua
Armitx	Iturraldeko borda	Xurioneko borda
Arterenea	Katalan borda	

Larrapil-Sarriku auzoko etxeak denera: 11

LARRAPIL-SARRIKU 1701-1800




Orizki auzoa 1701-1800

Aitzalegia	Dendarieneko borda (2)	Olagaraia
Antsoneko borda	Iasola	Olazarrea
Arrantzelaia	Jauregiberriko borda	Olazarreko borda
Artzariain	Lopeneko borda	Uharteko borda
Bagaratea	Marigoroseneko borda	Urrutiko borda
Barbereneko borda	Mendiondoa	Xoraxuriko borda
Dendarieneko borda (1)	Mendiondoko borda	

Orizki auzoko etxeak denera: 20

ORIZKI 1701-1800




Lakain-Apezborro 1701-1800

Aldalurreko borda	Etxaxuriko borda	Mariskirenagaraia
Aldatsea	Etxebertzeko borda	Maritoneko borda
Apezborro	Iguzkiagerreko borda	Perugarrieneko borda (1)
Arantxipiko borda	Irisarrigaraia	Santsiñeneko borda
Basateko borda	Lekueder	Zelaiko borda

Lakain-Apezborro auzoko etxeak denera: 15

LAKAIN-APEZBORRO 1701-1800



1801etik 1900erako urteetan

kopuru hori ia bikoiztu egin zen, bertze 81 baserriren izenak ikusten baititugu.

XIXgarren mendeko urte hauetan, bataiatu eta hildakoen liburuez gain, badira erroldak, non etxe izenen zerrendak xeheki idatziak diren.

Honako hauek ditugu urte horietan egindakoak:

Agerrebereko borda	Gartxieneko borda	Monoa
Agerreko borda	Gastieneko borda	Murdeneko borda
Akoka	Gilleneko borda (behekoa)	Orizmendi
Aldabeko borda	Gilleneko borda (goikoa)	Otsango
Aldatsea	Gorostipaleko borda	Perotxeneko borda
Altzugaraiko borda	Inbidia	Perukiñeneko borda
Antsalasen borda	Intzeko borda	Salaberriko borda
Arotzeneko borda	Iriarteko borda	Saroiherri
Arretzeko borda	Irigoiñeneko borda	Sarriku
Arrigaraiko borda	Iriondoko borda	Telleriko borda
Arrioneko borda	Joanperoren borda	Tolareko borda
Arroseko borda	Juantsimoreneko borda	Tolareko borda
Artañaran	Kamioko borda	Urtsua
Asolaborro	Katton	Urtzalleneneko borda
Azpidea	Lakateneko borda	Xalaiñeneko borda
Bagamultxo	Landaburuko borda	Xalaiñeneko borda
Bagoleko borda	Larrabeta	Xalaiñeneko borda
Baztanen borda	Larrasaiesko borda	Xaxineko borda
Berekoborda	Legartzelaia	Xindola
Bordaberria	Lekunberri	Xurioneko borda
Domekeneko borda	Lekunberri	Zaldueneko borda
Errandoneko borda	Loiola	Zamateluko borda
Errementa*	Maestrueneko borda	Zamudieneko borda
Etxagaraiko borda	Marimigeleneko borda	Zimitzu
Etxeberrigaraiko borda	Meaka	Zumeldi
Ezkurregiberea	Mokorreko borda	
Ezkurregigaraia	Mokorreko borda – Añorbe	

*seinale hau dutenak desagertuak dira.


Auzoka banatuta, honela ditugu baserriak XIX. mendean*Gorosurreta auzoa 1801-1900*

Altzugaraiko borda	Martikoneko borda	Telleriko borda
Argiñeneko borda	Maxterneko borda	Xalaiñeneko borda (1)
Elizaldeko borda	Maxterneko borda	Xalaiñeneko borda (2)
Errandoneko borda	Mitxeleneko borda	Zaldueneko borda
Etxebertzeko borda	Monoa	
Gorosurreta	Sagardiberea*	

Gorosurreta auzoko etxeak denera: 16

*dutenak desagertuak dira

GOROSURRETA 1801-1900




Lurriztiederra auzoa 1801-1900

Aldabeko borda	Goienetxegaraia	Larraldea
Antxurdeneko borda	Iparragerreko borda	Meaka
Apeztegiko borda	Joangoneko borda	Perotxeneko borda
Axular	Juantximoreneko borda	Xalaiñeneko borda
Berroeta	Katton	Xaxineko borda
Donpauleneko borda	Landaburuko borda	Zamargilleneneko borda

Lurriztiederrako auzoko etxeak denera: 18

LURRIZTIEDERRA 1801-1900



Urritzokieta auzoa 1801-1900

Arrakoitz	Garaikoetxeko borda	Olajaundegiko borda
Arretxeko borda	Goienetxeko borda	Ozkaritz
Benta Etxajuria	Goietxeko borda	Perukiñeneko borda
Berekoborda	Inbidia	Saindueneko borda
Berekoetxea	Iribarreneko borda	Salaberriko borda
Berekozugia	Iriondoko borda	Saroieta
Bidatzerdia	Lapitzegia	Topaldeko borda
Bordaberria	Latsabea*	Zamudieneko borda
Etxeberriko borda	Maieneko borda	Zumeldi
Ezkutua	Mugerdia	


Urritzokieta auzoko etxeak denera: 29

Larrapil-Sarriku auzoa 1801-1900

Agerreko borda (1)	Lakateneko borda
Agerreko borda (2)	Larrabeta
Akoka	Legartzelaia
Armitx	Mestrueneko borda
Arotzeneko borda	Marimigeleneko borda
Artañaran	Matxiñeneko borda
Arterenea	Mokorreko borda
Asolaborro	Mokorreko borda-Añorbe
Buxuneko borda	Murdeneko borda
Domekeneko borda	Oiarburua
Elizaldegarai	Otsango
Etxeberrigaraiko borda	Sarriku
Gastieneko borda	Xindola
Gorostipaleko borda	Xurioneko borda
Iturraldeko borda	Iz. g.= 2
Katalan borda	

Larrapil-Sarrikuko etxeak denera: 32

LARRAPIL-SARRIKU 1801-1900




Orizki auzoa 1801-1900

1z. g.	Gilleneko borda (1)	Olazarrea
Aitzalegia	Gilleneko borda (2)	Olazarreko borda
Antsalasen borda	Iasola	Orizmendi
Antsoneko borda	Iriarteko borda	Saroiberri
Arrantzelaia	Irigoieneko borda	Tolareko borda (1)
Arroseko borda	Jauregiberriko borda	Tolareko borda (2)
Artzariain	Joanperoren borda	Uharteko borda
Bagamultxo	Kamioko borda	Urrutiko borda
Bagaratea	Lekunberri (1)	Urtsua
Barbereneko borda (1)	Lekunberri (2)	Urtzalleneko borda
Barbereneko borda (2)	Lopeneko borda	Xoraxuriko borda
Baztanen borda	Marigroseneko borda	Zamateluko borda
Ezkurregiberea	Mendiondoa	Zimitzu
Ezkurregigaraia	Mendiondoko borda	
Gartxieneko borda	Olagaraia	

Orizki auzoko etxeak denera: 44

ORIZKI 1801-1900




Lakain-Apezborro auzoa 1801-1900

Aldalurreko borda	Etxagaraiko borda	Mariskirenagaraia
Aldatsea	Etxaxuriko borda	Maritoneko borda
Apezborro	Iguzkiagerreko borda	Maritxenegaraia
Arantxipiko borda	Intzeko borda	Perugorrieneko borda (1)
Arrigaraiko borda	Irisarrigaraia	Santsiñeneko borda
Arrioneko borda	Juanperoren borda	Zelaiko borda
Azpidea	Lekueder	
Basateko Borda	Loyola	

Lakain-Apezborro auzoko etxeak denera: 22

LAKAIN-APEZBORRO 1801-1900



Hogeigarren mendean, 1901etik 2005era arte

25 baserri berri egin dira. Ondoko hauek:

Argieder	Gurutzeko borda	Olako borda
Bentatxikia	Herrigain	Perugarrireneko borda (2)
Bordaxuri	Iguzkitza	Suspelaldea
Dendarieneko borda (2)	Larrapil borda	Tokiarin
Erbikarai	Larregia	Tokiona
Etxetxikia	Lintzinborda	Tximistako borda
Eulinborda	Mendiegai	Usategi
Goikoaldatsea	Mokorreko borda (2)	


Auzoka banatuta, honela dira baserriak 2005ean

Gorosurreta auzoa 2005

<u>izena</u>	<u>Udalak emandako zenbakia</u>
Altzugaraiko borda	8
Argiñenea	1
Argiñeneko borda	6
Elizaldeko borda	5
Erbikarai	
Errandoneko borda	11
Etxebertzeko borda	13
Gorosurreta	7
Lizarieta Hotela	16
Lizarietako etxetxoa	15
Martikoneko borda	10
Maxterreneko borda	3
Maxterreneko borda	4
Mitxeleneko borda	9
Monoa	
Sagardiberea	
Telleriko Borda	2
Xalaiñeneko borda (1)	
Xalaiñeneko borda (2)	
Zaldueneko borda	12

Gorosurreta auzoko etxeak, denera: 20


GOROSURRETA 1901-2005



Lurriztiederra auzoa 2005

<u>izena</u>	<u>Zenbakia</u>
Agerrebereko borda	13
Aldabeko borda	17
Antxurdeneko borda	5
Apeztegiko borda	15
Axular	2
Berroeta	3
Donpauleneko borda	16
Eulin borda	20
Galtzerdi Fabrika	18
Goienetxegaraia	4
Herrigain	21
Iparragerreko borda	
Joanaberrineko borda	
Joangoneko borda	
Katon	14
Landaburuko borda	12
Mendihegal	1
Miaka	9
Perotxeneko borda	
Usoa Kooperatiba	19
Xalaiñeneko borda	10
Xaxineko borda	
Zamargilleneko borda	11
Lurriztiederra auzoko etxeak denera:	25

LURRIZTIEDERRA 1901-2005



Urritzokieta auzoa 2005

<u>izena</u>	<u>Zenbakia</u>
Arrakoitz	30
Arretxeko borda	17
Arterenea	
Bentatxikia	28
Bereko borda	4
Berekoetxea	5
Berekozugia	12
Bidatzerdia	19
Bordaberria	10
Enbidia	
Etxeberriko borda	16
Etxetxikia	31
Ezcutua	21
Ezcutua	22
Garaikoetxeko borda	2
Goienetxeko borda	9
Goietxeko borda	15
Guarda-etxea (?)	29
Hotel Benta	27
Iribarreneko borda*	
Iriondoko borda	
Lapitzegia	
Lintzinborda	8 ^a
Maieneko borda	
Mugerdia	20
Olajaundegiko borda	6
Ozkaritz	
Ozkaritz	25
Saindueneko borda	8
Salaberriko borda	18
Santa Krutz Ermita	3
Saroieta	14
Tokiona	13
Topaldeko borda	11
Tximistako borda	9 ^a
Zamudioneko borda	
Zentrala	26
Zumeldi	23

Urritzokieta auzoko etxeak denera: 39

URRITZOKIETA 1901-2005




Larrapil-Sarriku auzoa 2005

<u>izena</u>	<u>Zenbakia</u>
Agerreko borda	21
Agerreko Borda	22
Akoka	14
Argieder	12
Armitx	10
Arotzeneko borda	9
Artañaran	
Arterenea	
Asolaborro	
Bagolea	26
Buxungo borda	19
Domekeneko borda	5
Elizaldegaraia	15
Etxeberrigaraiko borda	25
Gastieneko borda	
Gorostipaleko borda	18
Gurutzeko borda	
Iguzkitza	1A
Iturraldeko borda	3
Iturraldeko Pirutegia	
Katalan borda	
Katalinsantsineneko borda	
Lakateneko borda	4
Larrabeta	16
Larrapilgo borda	27
Legartzelaia	
Maestrueneko borda	11
Marimigeleneko borda	8
Matxiñeneko borda	17
Mokorreko borda	23
Mokorreko borda-Añorbe	24
Murdeneko borda	6
Oiarburua	13
Otsango	
Perukiñeneko borda	7
Sarriku	20
Tokiarin	1B
Topaldeko borda	1C
Xindola	2
Xurioneko borda	
Xurioneko borda (2)	
Izenik gabeak: 2	

Larrapil-Sarriku auzoko etxeak, denera: 45

LARRAPIL-SARRIKU 1901-2005




Orizki auzoa 2005

<u>izena</u>	<u>Zenbakia</u>
Aitzalegia	
Antsoneko borda	30
Arrantzelaia	24
Arroseko borda	8
Artzain	26
Barbereneko borda	12
Baztanen borda	16
Bordaxuri	
Dendarieneko borda	14
Dendarieneko borda	
Errota	3
Ezkurregiberea	
Ezkurregigaraia	22
Gartxieneko borda	31
Gilleneko borda	25
Gilleneko borda	6
Goiko Zentrala	7
Irigoieneko borda	10
Joanperitzeneko borda	29
Kamioko borda	23
Larregi	
Lekunberri	17
Lekunberri	18
Lopeneko borda	
Marigoroseneko borda	
Mendiondoa	1
Mendiondoko borda	28
Obenea	21
Obeneko Errota	33
Olagaraia	4
Olako borda	27
Olazarra	2
Orizmendi	
Pirutegia	32
Saroiberri	20
Tolareko Bekoborda	
Tolareko borda	9
Uharteko borda	
Urtsua	19
Urtzalleneko borda	11
Xoraxuriko borda	5
Zamateluko borda	15
Zillarrantzpe - Bagamultxo	34
Zimitzu	

Orizki auzoko etxeak denera: 45 (etxebizitzak 43)

ORIZKI 1900-2005




Lakain-Apezborro auzoa 2005

<u>izena</u>	<u>Zenbakia</u>
Aldalurko borda	13
Aldatsea	
Apezborro	22
Arantxipiko borda	5
Arrieneko borda	10
Arrigaraiko borda	
Azpidea	3
Basateko borda	11
Etxagaraiko borda	6
Etxaxuriko borda	4
<i>Etxebertzeko borda</i>	12
Garaiko borda	19
Goiko Aldatsea	
Iguzkiagerreko borda	17
Intzeko borda	12
Irisarrigaraia	16
Larrasaietseko borda	7
Lekainberro	1
Lekuederrea	2
Mariskineko borda	18
Maritoneko borda	15
Perugorrieneko borda (1)	8
Perugorrieneko borda (2)	9
Santsiñeneko borda	14
Suspelaldea	21
Usategia	20
Zelaiko borda	

Lakain-Apezborro auzoko etxeak denera: 27

LAKAIN-APEZBORRO 1901-2005



Denera, 2005. urtean, 198 baserriko izenak ditugu.
Horietan 12, desagertuak kenduta, 186 gelditzen dira.

Baserriaren ugaritzea, eta hondaraldiko hustea

Ikusi dugunez, baserria XVIII. eta XIX. mendeetan ugaritu zen, batez ere. Zergatik? Herriko populazioa mende horietan haunditu egin zen, eta luberriak behar ziren jendea eta aziendak mantentzeko, jateko gehiago behar zen, baita etxebizitza gehiago ere. Iduri duenez, jendearen jantokia lantokitik, eta azienden bazka-lekutik hurbilago izateko, mendian bertan egin zituzten etxebizitza horiek.

Azken urteetan, berriz, baserriak, karrikako etxeak ez bezalako aldaera izan du, jendearen bizimoduan gertatu diren aldaketekin hainbat baserri utzi egin da. Lan eskasia zela eta, baserriko jendea joan zen kanpora gehien bat, batez ere autoentzako bideak ireki ziren bitartean. Pistak ireki, 1969an hasi ziren, eta egunero etxetik bertatik fabrikara joateko aukera izanez geroztik, nekezago hustu dira baserriak. Gaur den egunean, baserriko lana hainbertzek utzi eta gero, hala ere, 90 baserritan bizi da jendea. Bertze 36tara asteburu eta oporraldietan etortzen da. Arrunt hustuta gelditutakoak 54 dira.

Baserri kopurua eta beraien okupazioa auzoka

	jende finkoa	asteburukoa	hutsak	denera
Gorosurreta	7	3	6	18
Lurritiederra	7	9	10	26
Urritzokieta	25	6	5	36
Larrapil-Sarriku	17	8	14	39
Orizki	18	3	22	43
Lakain-Apezborro	16	7	4	27
	90	36	61	189

Herri osoko etxeak, karrika eta baserriak, urteetan zehar

<i>1700.ean</i>	<i>1800.ean</i>	<i>1900.ean</i>	<i>Gaur egun</i>
148	209	292	365

365 etxeetatik 76 hutsak daude: 54 baserri eta karrikako 22. Jendeak, bizitzeko, beraz, 289 etxe erabiltzen ditu, denera, mendikoak eta karrikakoak batuta.

Etxeak berritu eta berreraiki dira

Etxe batzuen adina badakigu: 200, 300, 400 urte. Goiko zerrendetan ikusi dugun bezala, 1600-1700 urteetan 120 etxe baziren karrikan eta 25 baserri, eta beren izenak ikusi ditugu. Horietako gehienek, denek ez bada, 400 urte badituzte. Gehiago ere bai, nahiz eta ez garbi jakin zenbat eta zeinek, ezagutzen ditugun paperek erakusten dutenetik. Etxearen formak ere adierazten du bere buruaren adina. Etxearen formagatik erraten ahal dugu, errate baterako, Arria eta Iñarrea XV.-XVI. mende aitzinekoak izaten ahal adirela, be-

raietan ageri den estilo gotikoagatik. Baina, orain ikusten ditugun bezalakoak ziren? Bi etxe horiek bai, seguraski, miradoreak eta xehetasun batzuk kenduta. Urteak joan ahala, denboraren eraginagatik batzuetan, ezbeharraren ondorioz bertzeetan, etxe aunitzek konpondu beharra izan dute, berritu edo arrunt berreraiki beharra ere bai, zenbaitetan. Etxearen egiturak huts egin zuelako nahiz suak erre zuelako.

Ez da harrigarria etxeak erretzea. Gehienetan, ia denetan, goia bazka idorrez bete egoten zen hilabetetan, baina behean ere ez zen falta. Eta etxeok argia? Etxean erabiltzen zen argia sua zen, kandela, petrolioak, karburua. Eskutan egunero suarekin etxean barrena. Nola harritzen ahal gara etxea erretzeaz? Datu zehatz batzuren berri badugu: Ataburuan ez ageri izanagatik, badakigu Tomasenea, suak erre eta 1745ean berreraiki zutela. Hemeretzigarren mendean hasita, bederen, bada herrian Sute Elkartea, La Echalararra izenekoak. Horren arabera, 1861ean Salaberria etxea erre zen; 1865ean Maritonea; 1866an Lekuberria, 1883an Ezkutua, 1891ean Jurionea. Hau bera berriz 1908an, Behekoetxea 1891ean, Enbidia 1901ean, Legartzelaia 1911n, Iribarrenea 1899an, Ezkutua 1897an, Lakatenea 1906an, Asolaborro 1926an, Domingelena 1927an, Arria 1944an, Mokorra 1973an. Aitzineko mendeetan horren antzera gertatu izanen zela pentsatzen ahal dugu, bizimodua berdinsua baitzen eta etxeen egitura eta erabilera ez hobea.

Ez ziren, ordea, etxea berritzeko arrazoi bakarrak. Bizilekua hobetzeagatik ere hainbat etxe-berritze izan zen. Horren ikusgai argia dugu XVIII. eta XIX. mendeetakoa, zenbait etxeren ataburuek erraten duten bezala: 'reedificada', 'restaurada'. Hor dugu lehengo Herrikoetxea, gaur egun Kultur Etxea, 1685ean berreraikia, Iriondoa 1738an, urte horretan bertan Peruenea, Maieenea 1775ean, Irisarria 1779an, Apeztegia 1781ean, Arburua 1784an, Urtzalleneana 1785ean, Arrigarraia 1788an, Gastienea 1820an, Bidaburua 1823an, Salaineneana 1863an, Praderaenea 1870ean. Mitxelarrenea, gaurko Herrikoetxea, erortzeko zegoelako, 1828an berritik egin zuten. Marimigelena ere, arrunt berritu zuten 1846an, errekatik zerbait urrunduta, lehen erreka bazterreko paretaren beraren gainean jaso baitzen. Mila zazpiehun eta mila zortziehun urteetan berrizatu edo berritik egindako etxe franko da.

Gaur den egunean ere gauza bera gertatzen ikusten dugu, Arburua eta Mikelestona bezalakoetan, erabat berreraikitzen ikusiak baititugu, nahiz eta lehengo iduria eta lehengo egitura errespetatuz, ia erabatean. Erretorenea, berriz, oso-osorik berritik egin, baina bere lehengo forma galduta. Izena ere aldatu egin zioten, baina etxea berritu baino lehenago, 1640. urte inguruan Parrokiak erosi zuenean. Izan ere, Tornariarena zuen bere izena orduan. Berritze edo berritik jasotzea gehiagotan ere gertatu da, eta aldian aldiko estilo eta sosari egokitu. Paper zaharren errana aintzat hartzen badugu, lehenbiziko etxe gehienak egun ikusten ditugunak baino eskasagoak ziren. Gure hurbileko herri batzuk ia-ia erabat zurezko etxez hornituak omen ziren XVII. mendearen hasieran, mila seihun eta ondoko urteetan. Pentsatzekoa da, horren arabera, Etxalarren ere izanen zirela dena zura zirenak. Zenbaitek lehenengo solairuraino harrizkoa zuten, eta hortik goitikoa zurezkoa. Gero joan ziren kisu eta harrizko paretak teilaturaino luzatzen, eta orain ikusten ditugun iskinarri ederrez hornitzen. Etxalarko gehienak horrelakoak dira.

Adreilu eta zurezko fatxada dutenen multzoa ere bada: Aldabea, Iñarrea, Lopenea, Mokorra, Apeztegia, Landaburua, Iriondoa, Lakainberro, Peruki-

ñenea, Maisterrenea, Elizaldea, Agerrea eta Agerberrea, Tomasenea, Herrikoetxe zaharra, egun Kultur Etxea dena. Dena harri landuz egina Gaztelua dugu, non XIV-XVgarren mendeko fatxada zatiak ere ikusten ahal diren, erre kara jozten duen aldean. Aitzineko aldea beranduagokoa da. Hori karrikako etxeei dagokienez.

Baserría, gehiena, karrikako etxea baino geroagokoa da, XVIII eta XIXgarren mendekoa ia dena. Eta banazbertze karrikako etxearen borda zenez gero, izen propiorik gabeko etxea, karrikakoak ematen baitzión izena. Gainean ikusi dugun bezala. Egitura eta itxura ere arruntaxeagoa du, hainbatetan, karrikakoarekin konparatuta. Aipatzen ahal da adreilu eta zurezko zenbait etxe: Garaikoetxeko Borda, Bordaberria, Behekozubia, Uharteko Borda, Lekainberro...

Lehen go eta oraingo Herriko Etxea

Lehen go Herriko Etxea Erretorenearen ondokoa da. 1682-1685 urteetan ia behetik hasita berritu zuten. Batzarreko aktetan agertzen denez, Berako Martin Irazokik egin zituen planoak; lanak, berriz, Juan Jauregik hartu zituen. Kanbotik ere etorri zen lanera argin bat, Juan Gaztanbide, argin nagusia. Kalostraziriak edo balaustreak, zurezkoak, orain desagertuak, bertako Migel Dendariena eskultoreak egin zituen. Fatxadan ageri den burun-buruko zura mozten hiru lagun aritu ziren, bi egunez, bi idiparerekin. Tikikerien artean, 4.000 teila sartu zituzten, Etxalarko teilerian eginak.

Armarria Juan Perotxena elkultorearena da. Bertze ofizial batekin egun bat eman zuen harria bilatzen, 8 erre al kobratuz. Harria ateratzegatik, 12 erre al. Harria ekartzea, 17 idiparez, 48 erre al. Juan de Gaztanbideri, harria hargaintzegatik, 8 erre al. Armarria burutzearen eskulanaz Perotxenari 268 erre al. 40 egun eta gehiago eman zituen lan horretan. Juan Maestruarena eskultore eta arkitektuaren lana izan zen armarria margotzea.

Behen ostatua zegoen, eta goi-goian, berriz, kartzela. XIX. mendearen hondarrean ospitale bihurtu zuten etxea, Elizako erroldan 1885ean Herriko etxe bezala ageri da, baina handik 2 urtera Koartela izenarekin. 1920an Asilo Ospitale izena du emana eta 1934az geroztik Koartela, 1985garren urtea arte. Eskolako gela baterako izan zen hondarreko erabilera, lehenbiziko solairua, eta ehia, hainbat gauzaren biltegirako. Gaur den egunean, teilatua, fatxadak eta barneko berriztatze eta berregokitze lanak burututa, bertze helburu batzuk betetzen ari da, kultur ekitaldiak, bereziki. Izan ere, Udalak Kultur Etxe bihurtu du.

Oraingo Herriko Etxea, Mitxelarrenea izena duena, 1737an erabaki zuen Batzarrak erostea. 9 mila duro kostatu zen, 837 dukatu, eta, sos gehiegirik ez zenez, urteko kontribuzioa bi erre al jaso zuen Udalak etxea ordaintzeko. Erosketako kostua eta etxeak eskatzen zituen hainbat moldatze lan ordaintzeko. Moldatze lanak eginagatik, etxea aski zaharra izanen zen, edo eta egitura kaxkarrekoa, zeren eta 80 urte geroago etxea ia erorian zegoen. 1828an, 15.500 erre al azkar gastatu zituzten berreraikitzen.

Mitxelarrenea ez zen Udaletxe izateko erosi, norbaitek pentsatzen ahal duen bezala. Orduko kontrabandoa egiten zen, tabakoarena behinik behin. Kontrabando hori tratatzeko soldaduak behar zirela, soldaduren bat bederen, Lizarrietan mugako bidea zainduko zuena, eta soldaduen bizilekutarako

erosi zuten Mitxelarrenea. Gaur den egunean, Udaletxeko zerbitzuez gain, bertze zenbait zerbitzuren lekua ere bada. Bake Epaitegiko gela, Bortzirietako Gizarte Laguntzako Mankomunitatearen egoitza, baita Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatearena ere. Etxearen beheko eskuinaldea, karrikaren mailakoa eta lehenengo solairukoa, tabernak eta jantokiak betetzen dute.

ERABILITAKO ITURRIAK

Etxalarko Udal artxiboko: Libros de Autos, Libros de Cuentas

Etxalarko Parrokiako: Libros de Bautizados, Finados, Casados

APEZETXEA, Pello, "Etxalarko etxe eta baserrien izenak", *Fontes Linguae Vasconum*, año XVII, nº 45.

Mapak: Etxalarko Euskara Batzordeak eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak egindakoen gainean egokituak, ttipi-ttapako laguntzarekin.

LABURPENA

Etxalarko etxei buruzko historiaren zati bat da lantxo honen edukia. XVII. mendetik hasita. Mende horretako 162 etxeren berri badugu, 134 karrikan eta 28 mendian sakabanatuak. Ondotik, gaurdaino, kopuru hori handitzen joan da, biztanlegoarekin batera, batzuetan, eta bizimoduaren aldatzearen arabera, bertzeetan. Toki eta era desberdinean. Dena den, baserria ugaritu zen, gehienbat. XVIII. eta XIX. mendeetan, aitzineko mendeko 28ko kopurua 160ko bihurtu zen. Karrikako etxe multzoan, berriz, ez zen aldaera handirik gertatu, XX. mendera arte. Moldatu eta berritu, bai. Baserria uzten joan zenean, nekazaría industri lanean sartu ahala, hasi zen karrikan eraikuntza zabaltzen. Jendearen bizitza aldatzearen ondorioa. Itxura guztien arabera, hasi berria dugun mendeak aldaketa handiagoak ekarriko ditu Etxalarko etxegintzari dagokionez.

RESUMEN

Esta es una pequeña parte de la historia de las casas de Etxalar, desde el siglo XVII. En ese siglo nos encontramos con 134 casas situadas en el núcleo urbano, y 28 más diseminadas en los montes de alrededor. Luego ha ido incrementándose ese número, de acuerdo al cambio de población, en lugares y modos diversos. La casa diseminada es la que alcanza mayor desarrollo los siglos XVIII y XIX: los 28 caseríos del siglo anterior se convierten en 160. En el núcleo urbano, en cambio, el aumento de edificación es muy pequeño en ese período. Lo que sí se da es la renovación y reedificación de bastantes casas. El siglo XX trae un fenómeno nuevo: el ganadero y labrador pasa a trabajar en la industria, y la construcción de nuevas casas se da en el centro urbano, mientras el caserío se abandona poco a poco. Por lo que parece, en el siglo XXI se va a acentuar ese fenómeno.

RÉSUMÉ

C'est une petite partie des maisons d'Etxalar, depuis le XVII^{ème} siècle. Au XVII^{ème} siècle il y a 134 maisons situées dans le noyau urbain, et 28 autres disséminées dans les montagnes des alentours. Plus tard, le nombre a augmenté, conformément au changement de la population, dans des endroits et des modes divers. Le nombre des maisons disséminées est celui qui augmente davantage aux XVIII et XIX siècles: les 28 fermes du siècle passé sont devenues 160. Dans le noyau urbain, par contre, l'augmentation des constructions est

très faible à cette époque. Cependant, la restauration et la reconstruction des maisons est fréquente. Le ^{XX}^{ème} siècle apporte un phénomène nouveau: l'éleveur et le laboureur passent à travailler dans l'industrie, et la construction de nouvelles maisons a lieu dans le centre urbain, tandis que l'on quitte la ferme peu à peu. Il semble que ce phénomène va augmenter au cours du ^{XXI}^{ème} siècle.

ABSTRACT

This is a small part of the history of the houses in Etxalar since the XVII century. In the XVII century, there were 134 houses in the urban nucleus and 28 spread over the neighbouring mountainside. This number subsequently increased, in line with population growth, in different places and different ways. Isolated houses grew the most in number over the XVIII and XIX centuries: the 28 farms in the previous century rose to 160. Little building took place in the urban nucleus over this period. A good number of houses, however, were done up and rebuilt. The XX century saw a new circumstance: farms and farmhands started working in industry and new houses were built in the urban centre, isolated farms being gradually abandoned. Everything would seem to indicate that this trend shall continue in the XXI century.